

**Bainatzea, uretan
murgiltzea eta igeri
egitea jarduera
freskagarriak dira
eta hagitz
dibertigarriak.**

**Halere,
garrantzitsua da
jakitea jarduerok
arriskuak ere
badituztela.**

**Gida honetan
oinarrizko
gomendioak
aurkituko dituzu
txikienen
segurtasuna
bermatzeko.**

Nafarroako  **Gobierno**
Gobernua **de Navarra**

Babes Zibilerako Zerbitzua
Servicio de Protección Civil

**Uda honetan,
gozatu uretan.**



1. Ez zaitetz sekula uretan sartu igerilekua itxita badago edo soroslea zainketa lanetan ez badago.
2. Igerilekua olana batez estalirik badago, ez saiatu sartzen edo gaintetik salto egiten, uretan eror zintezke eta ezin atera gero.
3. Igerilekuetako hesiak edo estaldurak hor daude zuk minik ez hartzeko. Ez itzazu ireki baimenik gabe.
4. Oso arriskutsua da igerilekuaren inguruan lasterka egitea; irrist egin dezakezu, uretara erori eta min hartu, edo besteei min eman.

**Ongi ikasi igerian,
igerilaririk trebeena
izan zaitezen.**

**Horixe duzu
igerilekuaz
gozatzeko modurik
hoberena**

7. Igerian ongi ikasi arte, mahukak edo txaleko puzgarria erabili behar dituzu beti. Jantzi itzazu heldu baten laguntzaz igerilekura sartu aurretik.
8. Bazkal ondoren, tarte batez egon behar duzu uretara sartu gabe. Kuluxka egin dezakezu, edo jolasean ibili, digestioa egiten duzun bitartean.
9. Ez egin buruz beheiti salto sakonera txikiko tokietan, buruan kolpe handia hartzen ahal duzu, eta mina hartu.

5. Igerilekuan jolasean ibil zaitezke beste umeak bultzatu edo uretara bota gabe, kolpe txar bat har dezaketelako igerilekuko ertzarekin.
6. Oso arriskutsua da hustubideak estaltzen dituzten saretetatik tiratzea, zeren eta hango hurrupaketa-indarra hain da handia, non tira egiten ahal dizun eta hondoan trabaturik gelditzen ahal zara.



10. Ez zaitetz inoiz ahantzi uretan dauden jostailuak biltzeaz. Laguntxoren batek haiekin jolasteko salto egiten badu, istripua izan dezake, eta mina hartu.
11. Umeren batek mina hartzen duela ikusiz gero, joan zaitetz laguntza eske arineketan heldu batengana.